

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

**Elkartek, kirol klubek edo pertsona fisikoek 2020an egiten dituzten gizarte eta kultura ekimenak eta kirol ekimenak finantzatzeko laguntzen deialdia jasotzen duen 2020ko martxoaren 11ko erabakiaren laburpena**

BDNS (identifikatzailea): 503618

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

#### **Deialdiaren xedea**

2020. urtean gizarte eta kultura arloko zein kirol arloko programak eta jarduerak egiten laguntzea, hain zuzen ere udalerrian egiten direnak edo udalerrientzat onuragarritzat jotzen direnak eta Udalaren urteko jarduna osatzen dutenak.

#### **Diruz lagundu daitezkeen arloak**

1. Gizarte eta kultura sustapena.

– Gizarte eta kultura jardueretarako laguntzak (ekitaldi tradizionalak, aisia eta astialdiko lantegiak, hitzaldiak eta ziklo monografikoak, bai eta herritarrek parte har dezaketenean gainerako gizarte eta kultura jarduera edo ekintza guztiak ere).

2. Kirol sustapena.

– Kirol jardueretarako laguntzak (lehiaketak, kirol ibilaldiak, txapelketak eta kirolarekin lotutako gainerako jarduera guztiak).

#### **Diruz laguntzerik ez dauden jarduerak**

Berariazko jarduerak, herriko jaietarako laguntzen, hitzarmenen eta abarren bidez dirulaguntza jasotzen dutenak.

Sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duten jarduerak.

Otorduen edo elikagaien gastuak, salbu eta produktu horiek zuzenean erabiltzen badira kirol jarduerako hornikuntzarako eta behar bezala justifikatuta badago.

Ondasun higigarriak edo higiezinak eta bulegoko material suntsikorrek erostea, salbu eta diruz lagundutako jarduera egiteko behar-beharrezkoa den materiala, alde aurretik haren beharrezko balorazio teknikoa eginda.

Funtzionamenduak sortutako gastuak (higiezinaren alokairua, langileen nominak, erregaia...).

#### **Onuradunak**

1. Irabazteko xederik gabeko kirol elkarte eta taldeak, behar bezala erregistratuta daudenak Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera, ondoko baldintzak betez gero:

Egoitza udalerrian dutela bertan soilik ari diren elkarteak eta kirol klubak, programak edo jarduerak egiten dituztenak.

Egoitza udalerrian ez eduki arren, dela udalerrian bazkide kopuru nabarmena izateagatik dela jardueran udalerriko partaide asko egoteagatik, bertan edo inguruan egingo diren gizarte, kultura edo kirol programei ekiten dieten elkarteak eta kirol klubak.

2. Udalerrian erroldaturiko pertsona fisikoak, baldin eta zuzenez dagokien dirulaguntza emateko jarduerak egiten ari badira.

3. Nortasun juridikorik ez eduki arren, udalerrian hainbat kide erroldatuta dituzten pertsona fisikoen elkarteak, dirulaguntza jaso ditzaketen proiektuak edo jarduerak, hain zuzen ere udalaren jarduna osatzen dutenak eta udalerriko herritarrentzat onuragarritzat jotzen direnak, egin ahal badituzte.

#### **Oinarri arautzaileak**

Donemiliagako Udalbatzak 2020ko martxoaren 11n egindako bilkuran onetsiak.

#### **Laguntzaren zenbatekoa**

Deialdi honen gehieneko zuzkidura 5.100,00 euro da: (231.481.000 aplikazioa –erretiratu-  
tuen etxea- 2.500,00 euro); (334.482.000 aplikazioa –kultura dirulaguntzak- 2.000,00 euro); eta  
(341.482.002 aplikazioa –kirol jardueretarako dirulaguntzak- 600,00 euro).

#### **Eskaerak aurkezteko epea**

Aurkezteko epea 2020ko irailaren 7an bukatuko da.

Erdoña, 2020ko apirilaren 21a

*Alkatea*

*ERIKA LETAMENDI HURTADO*